

Glifosatoa eta ni

Gure harremanaren kronologia laburra egingo dut soilik oroimena erabiliz, hau da, sarean gaiak ikertu gabe. Hitz berria 2017ko udaberrian agertu zen nire bizitzan, gure etxean: Glifosatoa. Erabateko intrusioaren bidetik, produktu ekologikoz osatutako erosketa baten gehigarri eskatu-gabea aurkeztu zen. Gainbegiratu baino ez nuen egin. Ez nintzen gaizki sentitu gaiak ezer ez jakiteagatik. Gai pila pasatzen dira ohartu gabe. Trenean eserita doan bidaiariari paisaiaren zati handiena leihotik kanpo geratzen den ingurutik pasatzen zaio. Akorduan dut inprimakia nire arreta finkatzeko gakoa izan zela sinadura bilketa Europa mailakoa izatea. Pestizida toxiko bat European debekatzeko eskaera hartatik ulertu nuen: gizakientzat minbizi-sortzailea izan zitekeela eta, hau ziur, ondorio larriak zituela biodibertsitatean. Eta beti indargabe sentiarazten nauen zerbait gehiago: pestiziden gaineko ikerketak ez dituela pestizida industriak agindu eta finantzatu behar, baizik eta instantzia erregulatzailerak berak. “*Ejem, kontu ezaguna!*”. Lau sinadurarako lekua zegoen, eta herri-ekimen europarra zenez, bisitan etorriko ziren gurasoei ere sinadurak eskatzea otu zitzaidan. Inprimakia sukaldean zintzilik izan nuen haiek etorri ziren arte.

Sinatu zuten. Baina, dena esan behar badut, mesfidantzaz. Ea zer zen glifosato hori. Beraiek ez zekitela ezer horretaz, eta ea zer ote nekien nik. Ez baita nire arloa, benetan. Bidali genituen sinadurak, beste milioitik gora europarrarekin batera. Haurtzaindegiko ama bati entzun nion inprimakiaz, nirekin Yogara doan bati... Antza, zarata handirik egin gabe, baina ahoz-aho, bazebilen ibili, glifosatoa.

Urte erdira edo izan nituen haren hurrengo berriak. Noren eta Alemania-



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

ko nekazaritza ministro kontserbadorearen baieztakotoari esker (sorpresa!), glifosatoa erabiltzeko baimena hurrengo bost urtetarako luzatuko zela European. Nola eta sozialista deituriko alderdiak daraman ingurugiro ministerioaren betoaren kontra, artean bi alderdi handien koalizioa indarrean zegoela, eta alta, koalizio horren araudia urratuz. Noiz eta Merkelen alderdiak, Jamaikaren koloreak lituzkeen gobernu alemaniar batera heltzeko negoziatioek porrot egin zuten, sozialista traidionatu horiexekin zundaketetan hasi behar zuenean. “*Amatxo maitea, benetan?*”. Deskalabru hau guztia prentsan agertu zenean glifosatoaren kontrako jarreraren argumentu bat nagusitzen zen argi eta garbi: espezieen suntsipena. Adituak izan gabe ere, kontzeptu batzuk serio hartzen hasi behar dugu.

Gabonak tartean, aste batzuk pasa dira osteraren ere glifosatoaz entzun orduko. Koalizio berririk gabe jarraitzen du Alemaniak (agian ez du BEHAR) eta lagun batek esnatu nau goizean, telefonoz, 300 bat traktore pasa direla bere etxe aurretik. Bere umea entzuten dut atzetik, asaldatuta “*Traktor! Traktor!*” esaten. Dinosaurioak zer diren dakien ume batek leihotik dinosaurioak ikusi izan balitu bezain aztoraturik. Nire laguna ere, umearen ama, hunkituta dago, ez zuela gogoan manifestazioa zegoela, elkarrekin joango ahal ginen. Nik ez nekien ezer delako manifestazioaz, beste laborantza baten eta glifosatoaren debekua aldekoaz, baina ezin izan dut berarekin joan, umeen gripeak aginduta.

Lagunaren balantzea jaso dut mezu bidez: “*160 traktore! Bat Augsburgetik. Asko hegoaldeko etorriak. Erleen kontuarekin hasi behar dugu*”. Badaude bere bidea egiten duten aferak. Baietz erantzun diot, kontatzeko nirekin. ■